

Ez gara nahiko abertzale

Deia, 1977-08-30.

Esaldi hau Oteiza-ri entzun nion behin, eta askotan etortzen zait gogora.

Gizonak egunero egin behar ditu aukerak; eta mota eta garrantzi askotakoak. Gizonaren bizitza aukera hutsa da: lan arazoetan, senidetartekoetan, gizartekoetan, berezko dituen pertsonaletan. Ez dira denak *bai* edo *ez*-ko errazak izaten, eta behin baino gehiagotan erdibidean eta zintzilika bezala ere geratzen da gizona.

Aukera hoietako bat, talde-aukera da.

Gizona sendi bateko zati bat da; baina lan-tokian ere kideak ba ditu; lagunartekoan ere ba du taldea; kirolen batean partaide bada, han ere zor du nolabaiteko laguntza; hauzo baten bizi bada, eta bizi beharko du, han gertatzen denarenak ere arduratuko du zerbait, eta, gauzak gehiegi ez luzatzeko, demokrazian bizi bada, alderdi edo talde batean egotea ez da harritzekoa.

Nolabait, gizonak zor dio talde hoietako bakoitzari nolabaiteko leialtasun bat.

Talde-kide da. Baina hemen ere, beste munduko arazo guzietan bezala, ba dira jerarkiak. Futbol-ekipo batek eskatzen dionak baino gehiago bultzako dio gizonari familiak.

Esate baterako.

Eta jerarki hau nola egiten dugun, aukera hau nola egiten dugun, aukera hau nola egiten dugun, honek du, neretzat, garrantzia.

Honek neurtzen du gizona.

Soziologia aldetik talde guzi hoiek berezko indarra, kohesio indar bat, ba dute, beti ba da jerarkia gehiago duen bat: erlijiozkoa, politikazkoa, herritasunezkoa.

Honera, herritasunera iritxi nahi nuen hau esateko:

Euskaldunen artean, eta zoritxarrez, gure herritasun eskasia ari garelako erakusten, beste edozer taldekeriak menderatzen gaituela. Hala ez balitz, ez ginake oraindik eguneroko istiluetan ibiliko; beste zerbaitek gehiago elkartuko ba gintu, gure herritasunak behar luken jerarkia balu, ez ginake txikikerietan hain erraz eroriko.

Hontan Oteizak arrazoi du: euskaldunok ez gara *nahiko* abertzale.